

MATRIX ETA ANTZEKOAK

Agustin Arrieta Urtizberrea

Duela urte batzuk adiskide batek *Matrix* filma ikusita ote neukan galdetu zidan. Erantzuna ezezkoa izan zen. Harritu egin zen, haren iritziz, filma, kalitate onekoa izateaz gain, 'oso filosofikoa delako'. Orduan jakin nuen film horrek, besteak beste, kutsu filosofikoa zuten eztabaidak piztuak zituela. Orduan jakin nuen film hori eskoletan erabiltzen zela ikasleak gogoe-ta egitera bultzatzeko. Ni, filosofiako irakaslea naizen hau, nire eginbeharrari izkina egiten ari nintzaiola sentitu nuen.

Eta *Matrix* ikusi nuen.

Nire helburua ez da filmari buruzko iritzia ematea, ezta film horretan gertatzen diren gora-beherei eta gertakari korapilotsuei buruz eztabaidatzea ere. Xehetasun horietaz eztabaidatzeko web orriak-eta badaudela jakin badakit, baina, egiari zor, ez dut interes handirik. Dena den, zalantzarik gabe, film horrek atentzioa eman zidan.

Filmaren pertsonaiarik nagusiak Neo du izena. Neok bere buruari buruzko hainbat eta hainbat uste ez ezik munduari buruzko usteak ere ditu: beraren ustean, iletsua da, 1999. urtean informatikako enpresa batean lan egiten ari da, egunero ohiko otorduak egiten ditu, emozioak sumatzen ditu, tarteka zoriontsutat hartzen du bere burua, hiri batean bizi da... Alabaina, benenetan Neo burusoila da, poltsa-antzeko batean sartuta bizi da preso baten gisan 2199. urtean mundu ilun batean, kable batzuen bidez elikatzen dute, eta antzeko bide-tik makina batzuek manipulaten dute Neoren burmuina Neok lehen aipatu usteak eduki ditzan. Azken buruan, Neok dituen uste, iritzia eta sinesmen guztiak faltsuak dira.

Hori da *Matrix* filmaren ideia nagusia. Hala, ideia nagusi horretatik abiatuz, galdera asko eta asko egin diezazkiokegu geure buruari. Litekeena al da horrelako mundu bat? Edo, areago, probablea al da horrelako mundua? Galdera mardulak, zailak erantzuteko.

Haatik, bestelako galderak ere egin ditzakegu, zertxobait apalagoak. Eman dezagun, Neo bezala, preso gaudela, poltsa-antzekoan bizitzen, erabat manipulatuak. Hain manipulatuak ezen zoriontsuak ere izan gaitzkeen. Geure buruari hauxe galde diezaiokegu: zer da hobe, gezur handi horre-



tan bizitzen jarraitzea edo nahiago dugu aska gaitzabela gure benetako egoera zein den jakin dezagun? Batzuek nahiago izango dute poltsa-antzekoan bizitzen jarraitu eta, halaber, 1999. urtean mundu koloretsu batean bizi direla uste izaten jarraitu. Beste batzuek, ordea, egiaren bandera jarriko dute edozein gauzaren ginetik, eta benetako egoera zein den jakin nahi izango dute, nahiz eta benetako egoera ez den batere desiragarria. Bi aukera horien artean hautu egitea zaila da, eta norberak, norberaren zirkunstantzien arabera, alde batera edo bestera joko du. Antzeko dilema izaten dugu galdetzen digutenean, minbizi hilgarria edukiko bazenu, zer nahiago zenuke, egia jakin ala ez? Ez dut uste erantzun bakarra duen galdera baten aurrean gaudenik. Nolako pertsona eta zirkunstantziak, halako erantzuna.

Kontuak kontu –esan dezadan behingoz– *Matrix* filmak proposatzen duen ideia nagusia oso zaharra da, gutxienez Descartes bezain zaharra. Descartesek horrelako mundu hitsa ere proposatzen du. Lehenik eta behin, ametsaren hipotesia mahai gainean jartzen du. Ametsetan aritzen garenean, ez dugu ametsetan egotearen kontzientziarik, harik eta esnatzen garen arte. Eskaileretan behera erortzen ari naizela amesten dudanean, ni, faltsuki, eskaileretan behera erortzen ari naizela sinistuta nago. Hona hemen hipotesia: eta dena amets bat balitz? Geroago, Descartesek jeinu maltzuraren hipotesia planteatzen du. Jeinu maltzurak gure kontzientzia erabat manipulatzeko gaitasuna izango luke. Hondartzan nagoela uste dut, baina uste hori faltsua da; uste hori jeinuaren maltzurkeriaren emaitza da. Orduan, zer da *Matrix*? Garbi dago, *Matrix* Descartesek jeinu maltzuraren irudikapen modernoa da. Aipatu behar da XX. mendeko 70eko hamarkadan H. Putnam filosofoak *Matrix*etik oso gertu dagoen jeinu maltzuraren irudikapena eman zigula. Putnamek honelaxe zioen: ni agian kupela batean likido berezi artean dagoen *burmuin bat* baino ez naiz. *Burmuin hori* konputagailu erraldoi batekin konektatuta dago, eta zientzialari (maltzur) batek *burmuin horretara* beharrezkoak diren seinaleak bidaltzen ditu, nik –Neok bezala eta Neok bezain oker– irakaslea eta errenteriarra naizela pentsa dezadan. Putnamen iruditik *Matrix*era ez dago distantzia handirik.

Jakina, Descartesek jeinu maltzuraren hipotesia mahai gainean jarri zuenean, ziur aski hipotesi teoriko gisa planteatu zuen. Hala eta guztiz ere, nire irudipena da *Matrix* filma ikusten dugunean denok pentsatzen dugula horrelako mundu bat ez dela horren inprobablea. Teknologia berrien eskutik erabateko birtualtasunean murgiltzea, aukera gisa, gero eta gertua-

go ikusten dugu. Birtualtasunaren adibide asko eta asko eman daitezke. Esan didatenez, hor nonbait *Second Life* izeneko 'joko' bat egon badago. Horrelako jokoetan pentsatuz, *Matrix* ez da hain urruti ikusten. Onartzea zaila bada ere, zenbaite-tan badirudi pixkana-pixkanaka eta banan-banan sartzten ari garela *Matrix*en norberak esleitu-ta duen poltsa-antzekoan, lozorroan geratzeko asmotan. Baina zorientsu.

Dena dela, utz dezagun *Matrix* alde batera. Une honetan, eta behin-behineko bada ere, onartuko (edo onartu nahi) dut erabateko birtualtasuna ez dela posible. Onartuko dut joko birtualak jokoak baino ez direla, eta onartuko dut denok dakigula jokoaren eta errealitatearen arteko bereizketa egiten. Izan gaitezen, bada, baikorrak.

Hala ere, harrapakari baten gisan beste *Matrix* antzeko bat gure gain erortzeko bidean izan daitekeela ematen du. Eta 'arriku' hori burutsuagoa da, zoliagoa.

Irakurri izan dut Erdi Arotik Ilustraziorako jauzia oso labur deskriba daitekeela. Erdi Aroko gizakiak oso izaki xumetzat hartzen du bere burua, eta bere galdera mardulenei aurre egiteko orakulu batera jotzeko joera dauka. Izan ere, bere ahalmenetan ez du apenas konfiantzarik. Hortaz, orakuluari galdetzen dio, besteak beste, zer dira eta non daude ongia eta egia? Norantz doa mundua? Zer egin behar dut? Eta orakuluak, Jainkoaren izenean, erantzunak ematen dizkio. Bere ahalmenean konfiantza gutxi izan arren, orakuluan, berriz, sekulako konfiantza dauka Erdi Aroko gizakiak. Prozesu luze eta konplexuaren ondorioz, ilustrazioaren gizakia iritsi zen. Orakuluaren gaineko konfiantza gutxitu zen nabarmen, eta giza ahalmenen gaineko konfiantza ikaragarri areagotu zen. Gizakia Jainkoari desafio egitera ere ausartu zen. Gizakiak ez dio mugarik jartzen bere buruari, eta galderarik mardulenak ere erantzuten saiatzen da orakulurik gabe. Erdi Arotik Ilustraziorako jauziari eskuarki *aurreapen* deritzogu.

Gu, diotenez, Ilustrazioak abian jarri zuen bidean gabiltza. Baina horretaz ez nago ziur. Egun, orakuluaren presentzia sekulakoa da. Zalantzarik gabe, gure garaiko orakuluak beste itxura bat dauka, bestelakoa da, ez du jabe bakarra eta oso egitura konplexua dauka. Hala ere, nonahi dago, etxe guztietan sartuta. Olagarro baten traza hartzen diot orakuluari. Garro batean telebista nazionala dago, bestean irratia, hirugarrenean amaraun mundiala, laugarrenean mota guztietako entziklopediak eta aldizkariak, bosgarrena telebista lokalak, seigarrena egunka-

ri nazionalak, zazpigarrena egunkari lokalak, zortzigarren garroa patrikan sartu zaigu telefono itxura duela, bederatzigarrena egunkari azpinazionala edo erregionala, batzuk publikoak eta besteak pribatuak,...

Eta galdera bat gure buruan bueltaka dabilenean, olagarro-orakulari galdetzen diogu, eta ziur da erantzunen bat emango digula. Hala eta guztiz ere, Erdi Aroko orakulua ez bezala, gure orakulua denona da, neurri handi batean denok (edo gehienok) baikara olagarro-orakuluaren zati bat, eta ez baldin bagara, izan nahi dugu. Erdi Aroan ez bezala, orakuluaren inguruan egiten dugu denok (edo gehienok) lan. Konfiantza handia dago orakuluarengan, modu batean edo bestean, idatziz edo ozen, labur edo luze, erantzungo du. Zertarako kezkatu? Zertarako pentsatu?

Gure uste, iritzi eta sinesmen artean, zenbat dira olagarro itxura duen orakulutik jasotakoak?

Erdi Aroko orakuluak mezu bakarrak bidaltzen zituen: ni arima bat naiz eta, itsatsi zaidan gorputza ez bezala, hilezkorra naiz, eta Jainkoak sortu ninduen eta, beraz, haren mendekoa naiz eta... Horiek ziren gizakien usteak, iritziak eta sinesmenak. Horrenbestez, normala zen aldamenekoa akabatzea gorputz haren baitan deabrua ezkututzen zelakoan, deabruak ere egon bazeudelako. Normala zen deabru eta arima galduen kontrako terapiak eta gerrak antolatzea. Azken buruan, 'nolako sinesmena halako jokabidea', eta orakuluak sinesmenak ereiten zituen haziak balira bezala.

Oraingo orakulua, ordea, denona da, orakuluaren baitan zatitzoren bat denok daukagu, batzuek handiagoa bestetzuek txikiagoa, eta txikiagoa dutenek handiagoa nahi dute, eta handia dutenek handiagoa, eta orakuluaren garro guztiek usteak, sinesmenak eta iritziak zabaltzen dituzte, eta hori ona omen da, Erdi Aroan ez bezala, oraingo orakuluak gaztigitzen dituen usteak, sinesmenak eta iritziak askotarikoak baitira. Askatasuna. Eta askatasuna ezin da kritikatu.

Matrix antzeko bat dela iruditzen zait. Poltsa-antzeko batean sartzen ari gara, kasu hone-tan, gainera, nahi dugulako sartzen ari gara, eta kableak guk geuk jartzen ditugu gure burmuina-rekiko konexioa egite aldera, eta kable horietatik dator guztia, zarata ikaragarria. Informazioa.

Dena emanda dator, dena azkar emanda dator, lehena iristea garrantzitsua da: lehen iritzia emateak garrantzia dauka, baita lehen iritzia jasotzeak ere. Denok (edo gehienok) irensten eta irensten. Gehiegi pentsatzea denbora alferri-rik galtzea da.

Matrix-antzeko horren aurka ezin da borroka egin, denok baikara orakuluaren parte, eta inork ez du harririk bota nahi bere teiatuaren aurka.

Hortaz, zer egin? Ezer gutxi. Nire usteen, iritziaren eta sinesmenen artean zeintzuk diren ganorazkoak eta zeintzuk ez azter dezaket noizean behin, lasai-lasai eta isiltasunean. Agian ustekabeak izango ditut, eta sendotzat ditudan hainbat eta hainbat uste, iritzi eta sinesmen ganoragabeak direla edo hain sendoak ez direla aurkituko dut. Ah! Beste gauza bat ere egin daiteke. Higiegi kontua da. Uste, iritzi eta sinesmenak orakulan utzi baino lehen, bi bider (edo gehiagotan) pentsatu behar da, edonork har baitezake orakulan utzitakoa. Eta, esan bezala, nolako uste, iritzi eta sinesmenak, halako jokabideak; eta jokabideak arriskutsuak izan daitezke.